

# Novena a la Concepción Purísima de la Madre de Dios de Arrate

PATRONA DE EIBAR

*Joaquín Dorronsoro, Pbro.*

# N O V E N A

## a la Concepción Purísima de la Madre de Dios de Arrate

## PATRONA DE EIBAR

EDITORIAL FRANCISCANA ARANZAZU

1958

NIHIL OBSTAT
LIC. ROMANUS LASPIUR
*Censor*

IMPRIMATUR
DR. JOSEPH SUDUPE
*Vic. Gen.*

Sancti Sebastiani 3 februarii. 1958

## ORACION PREPARATORIA

Acordaos, ¡oh piadosísima Madre de Arrate!, que jamás se oyó decir que ninguno de los que han acudido a vuestra protección, implorado vuestro auxilio y reclamado vuestro socorro haya sido abandonado de Vos. Animado con esta confianza acudo, ¡oh Virgen Madre de las Vírgenes!, y gimiendo bajo el peso de mis pecados, me atrevo a parecer ante vuestra presencia soberana, pidiéndoos piedad. ¡Oh Madre de Arrate!, no despreciéis mis súplicas, antes bien escuchadlas y acogedlas favorablemente. Amen.

## ORACION FINAL

Salve, oh Madre de Arrate, llena de misericordia, nuestra vida y esperanza, a Vos clamamos los eibarreses, dándonos cuenta de que necesitamos vuestra celestial protección. No olvidamos las gracias que derramásteis sobre nuestros antepasados y las

que estáis derramando en nuestros días sobre nosotros. Gracias Amatxo de Arrate. No apartéis de nosotros vuestra dulce y maternal mirada. Extended vuestras virginales manos sobre nosotros. Tened siempre abierto vuestro misericordioso corazón. Defended y amparad a este vuestro pueblo, puesto bajo vuestro patronato, y hacedle florecer en la fe y en la piedad, a fin de que en la hora de la muerte se inclinen sus hijos hacia vuestros brazos amorosos y descansen en ellos eternamente.



Día primero

## LA VIRGEN DE ARRATE, INMACULADA EN SU CONCEPCION

Una de las prerrogativas más admirables de la Virgen de Arrate es, sin género de duda, su Inmaculada Concepción.

Desde tiempo inmemorial el pueblo de Eibar os ha venerado y honrado con este gloriosísimo título de Inmaculada Concepción.

Así lo confirma el Papa Pío IV en su Breve de 1563 dando el calificativo de Concepción Purísima de la Bienaventurada María de Arrate. Nuestros antepasados fueron tan celosos en conservar este título, que, al autorizar el Santo Padre la traslación de la fiesta del 8 de Diciembre al 8 de Septiembre, lo hizo con la condición de que ese día fuese honrada la Madre de Arrate bajo la invocación de Concepción Purísima.

Purísima Madre de Arrate, aunque nosotros no hemos tenido este singular privilegio, haz que vivamos sin manchar nuestras almas con el pecado.

## Día segundo

# LA VIRGEN DE ARRATE, MADRE CASTISIMA

¡Virgen Purísima de Arrate! Entre las virtudes más bellas y atrayentes con que fuisteis adornada por Dios, es vuestra pureza eximia, por la cual os llamamos Virgen de las Vírgenes. Tan grande era el aprecio y estima de la pureza, que estábais dispuesta a renunciar el sublime título de Madre de Dios antes que perderla.

Concedednos, oh Madre de Arrate, la dificilísima virtud de la castidad y pureza, que tantos eibarreses han conservado, mediante la tierna devoción que os han profesado.

## Día tercero

# LA VIRGEN DE ARRATE, SALUD DE LOS ENFERMOS

¡Oh Virgen Purísima de Arrate! Miles y miles de eibarreses acuden durante el año al Templo que nuestros antepasados os erigieron en la cima de Arrate a veneraros y a pediros algunos favores, cuya necesidad sentían en su corazón. Los que acudimos hoy a Vos en esta novena sufrimos también en nuestros cuerpos las miserias de la enfermedad. Extiende tus manos caritativas sobre nosotros, como antaño extendiste sobre los pobres y enfermos del Hospital de Eibar, limpiadnos de las miserias y enfermedades del cuerpo, no solamente a nosotros, que nos hallamos postrados a vuestros pies, sino también a nuestros familiares, que impedidos por males mayores, no han tenido la dicha de arrodillarse a vuestras plantas.

## Día cuarto

# LA VIRGEN DE ARRATE, REFUGIO DE LOS PECADORES

¡Oh Purísima Madre de Arrate, preservada de toda mancha de pecado! Nosotros vuestros hijos confesamos humildemente nuestras miserias y debilidades.

Todos los que nos hallamos en estos momentos a vuestros pies, llevamos en nuestras almas las sangrientas heridas del pecado, todos, unos más otros menos, tenemos

en nuestro corazón algún zarpazo del enemigo.

A pesar de ser grandes nuestras miserias morales no desconfiamos, pues sabemos que Vos, oh Madre de Arrate, sois refugio de los pecadores arrepentidos. Dadnos la gracia del arrepentimiento, para que podamos encontrar cobijo seguro en vuestro maternal corazón.

Día quinto

## LA VIRGEN DE ARRATE, CONSOLADORA DE LOS AFLIGIDOS

¡Oh Madre Purísima de Arrate, inclinada a favorecer a los miserables mortales! Vos conocéis perfectamente las espinas de las miserias materiales y espirituales que nos están punzando nuestro corazón. En este valle de lágrimas lo que impera es el dolor, el sufrimiento. Sufrimientos físicos y morales. Nuestras calles están llenas de jóvenes y de mayores que llevan en sus frentes los estigmas del dolor.

Enjugad, oh Madre de Arrate, nuestras amargas lágrimas, acariciad con vuestras blancas y suaves manos las arrugas del dolor que llevamos incrustadas en nuestros



cuerpos y en nuestras almas. Y ya que no podemos vivir sin ningún sufrimiento, haced que estas cruces, mezcladas con las vuestras, y con las de vuestro Hijo, sirvan de redención de nuestros pecados y de los de nuestros hermanos.

Día sexto

## LA VIRGEN DE ARRATE, MADRE PACIFICA

¡Oh Madre Purísima de Arrate! A pesar de las embravecidas olas y huracanados vientos de la persecución navegábais tranquila y serena, sin dejaros aplastar por las tempestades de la desesperación.

En vuestra casita de Nazaret reinaba una paz celestial, a flor de labios teníais siempre una sonrisa encantadora, fruto de la armonía y paz interior. Esta envidiable paz, que teníais en vuestro corazón, era efecto de la unión tan íntima que teníais con Dios, ya que estábais llena de gracia.

Concedednos oh Madre de Arrate, esta paz para nuestros corazones, para nuestras familias, para todo el pueblo de Eibar. Haced que no se abra en nuestro corazón ninguna grieta ni resquicio por donde pueda salir

esta paz y felicidad interior, que es patrimonio de las almas, que viven en estrecha unión con Dios.

Día *séptimo*

## LA VIRGEN DE ARRATE, AMANTE DE LOS NIÑOS DE EIBAR

¡Oh Purísima Madre de Arrate ¡Qué cuadro más tierno y dulce nos ofrecéis cuando os vemos rodeada de los tiernos niños eibarreses! Se ve que tenéis una predilección por ellos. Nos imaginamos ver en vuestro rostro una sonrisa especial cuando os encontramos rodeada de los angelicales niños de Eibar. Existe la piadosa costumbre de traer a este vuestro Templo a los niños, ya recién nacidos, ya mayorcitos, a fin de besar la orla de vuestro vestido, y cobijarse bajo vuestro manto protector.

Comprendemos vuestra predilección especial hacia los niños. Es que Vos, oh Madre de Arrate, sóis Madre de aquel Jesús, que acariciaba suavemente las mejillas de los niños, que se acercaban a El.

Defiéndelos de los enemigos y de los peligros del alma y del cuerpo.



Día octavo

## LA VIRGEN DE ARRATE, MADREPO DEROSA

¡Oh Virgen Purísima de Arrate! Sabemos que estáis proclamada y coronada Reina del Cielo. Sabemos que las arcas de los tesoros celestiales están en vuestro poder. Ninguna gracia desciende del Cielo sin que haya pasado por vuestras manos. No es de extrañar, pues eres Madre de Dios. Aquí nada le negásteis a vuestro Hijo; Este en recompensa nada os puede negar en el Cielo. Bien conocían vuestro asombroso poder nuestros antepasados, los cuales en los momentos más críticos de su vida os imploraban con la segura esperanza de que vuestro poder disiparía los negros nubarrones, que se cernían sobre ellos. ¡De cuántos peligros sacásteis airosos a los marineros de nuestras bravas costas! ¡De cuántos apuros a nuestros industriales! ¡De cuántas calamidades a nuestros labradores!

Con esta fe y confianza acudimos hoy a Vos, Madre de Arrate, profundamente convencidos de que todo lo puedes para vuestros hijos eibarreses.

Día noveno

## LA MADRE DE ARRATE, REINA Y PATRONA DE EIBAR

¡Oh Madre Purísima de Arrate! En los corazones de los eibarreses ocupáis un puesto predilecto. Tan profundo fué antaño el amor de los eibarreses a Vos, que por medio de aquella celebérrima Cofradía hizo suya la fama y magnificencia de Arrate, entregándoos su Hospital, uniendo su suerte a la vuestra. El año 1928, ante las peticiones de los eibarreses, el Papa Pío XI nos otorgó la gracia singular de proclamaros canónicamente Patrona Principal de Eibar, y el año siguiente nos confirió el alto honor de la Coronación Canónica. Desde entonces, Vos vigiláis con extraordinario celo y piedad, nuestro pueblo. Vemos palpablemente que Vos amáis con entrañas de madre a nuestro pueblo. Continuad ejerciendo, desde ese trono de Arrate, vuestra maternal protección sobre nosotros. No dejéis de ser Madre de los eibarreses, y sobre todo no consintáis que ningún eibarrés deje de ser vuestro fiel y fervoroso hijo.



## EIBAR'KO ZAINDARI,

### Arrate'ko Andre Mari guztiz garbiari

## BEDERATZIURRENA

## ASIERAKO OTOITZA

Gogoratu, Arrate'ko Andra Mari, guztiz garbi ta errukiorra, Zugana laguntza eske juan dan iñor, lagundu gabe utzi dezunik ez dala entzun.

Au dala ta, gu ere, eibartarrok, uste onez beterik gatoz zuregana, Arrate'ko Ama maite ori. Eta gure pekatu aundiagaitik larri gauden ezkero, Zuregana gatoz eta Zure aurrean auspezturik gaude. Gure eskariai entzun-gor ez egin, Arrate'ko Andra Mari orrek, entzun, aintzat artu ta eskatzen dizuguna eman.

## AZKENEKO OTOITZA

Arrate'ko eleizatxoan beso ta biotza zabalduta arkitzen zeran Ama maitea!

Zu izan zera gaur arte eibartarren arantza guztiak lore biurtu dituzuna; Zuk legundu dizkiguzu ezbearrak gure arpegian sortu zituen ximurrak; Zuk txuspertu dituzu familiko gurasoak beren eginkizun astunak betetzeko. Eskerrik asko, Arrate'ko Ama. Berriz ere eibartarrok zure laguntzaren premia sarritan izango degu noski. Zabaldu ba, zure biotz ori, ongi naiez ta mesedez

beteta daukazun biotz eder ori. Ixuri eibartarren artera Jaungoikoaren Aginduak betetzeko indarra. Aienatu Eibar'tik infernuko etsaia eta eriotz ondoren artu zure beso biguñetan gure anima, Zurekin bein betiko zeruan izan dedin. Ala izan bedi.



1'go. egunerako irakurgaia

## ARRATE'KO AMA TA SINISMENA

Jaungoikoak gizonari egin dion mesederik aundienetakoa sinismena da. Sinismen argi onek gure biotz bazter guztiak argitzen ditu. Onen bidez Jaungoiko ta Eliz Ama Donearen erakutsi guztiak ontzat artzen ditugu.

Badegu Andre Mariaren bizitzan zer ikasi ugari gai onetan.

Izan zituen otz-bero ugari bere egunetan: Belen'go estalpean Semetxoa izan zuenean, Ejipto'ra igesi juatekoan, Gurutz ondoan. Alaz ta guztiz Andra Mariaren biotz mamian zegon sinismen landaratxoa etzan ximeldu.

Arrate'ko Amaren oiñetan indartzen zuten beren sinismena antziñako eibartarrak. Gaur ere eibartarrak, mutil eta neska, zar eta gazte sinismen berokoak agertzen dira Arrate'ko Amaren oiñetan.

Eutsi dezaiogun trinko ta sendo birtute eder oni. Jokatu dezagun gure artu-emanetan sinismen berokoen antzera. Buru ta biotz bat egiñik.

2'gn. egunerako irakurgaia

## ARRATE'KO AMA TA ITXAROPENA

Bataio donea artu genduen egunean gure biotz mamian Jaungoikoak jarri zigun birtute zoragarria degu itxaropena. Onen bidez Jaungoikoaren aginduak bete ta zeruaren jabe izango geran uste osoa degu gugan. Birtute onek Jauna jartzen digu gure aurrean ez nolanaikoa, ez ximurkeriz betetakoa, gure Aita biotz-bigun ta zabalekoa.

Itxaropenaren premia eibartarrok noiz nai degu gure artean. Gure aurrekoak ere bazuten. Familia azi eziñean arkitzen ziran eibartar gurasoak Arrate'ko Amarengana juaten ziran laguntza eske; beren buruak pekatupean ikusten zituztenean Arrate'ko Amaren oiñetara juaten ziran eibartar gazteak, pekatuaren kutsurik gabe ibiltzeko laguntza eske.

Eziñaren aize-gorriak ez al du zure etxean zirrizturik arkitu? Naigabearen atzapar gogorrak ez dizu zure lepo zintzurrik biurritu? Zure anima ta Jaungoikoarekiko artu eman goxo-goxo oietan illun aldiak dituzu?

Atoz lenbaitlen Arrate'ko Amaren oñetara. Ez etsi. Eibartarren Ama degu.



3'gn. egunerako irakurgaia

## ARRATE'KO AMA TA MAITASUNA

Maitasuna. Zeru ta lurrean ezpañak jaulki duten itzik goxoena. Itz au entzun orduko bekozkorik illunena ere leguntzen asten da. Auxe degu Jaungoikoak gure biotz-baratzan aldatu duen lorerik politena. Adar bikoa degu: Jaungoikoarenganako maitasuna ta lagun urkoarenganakoa.

Arrate'ko Amaren biotzak berealdizko maitasun palastadak botatzen ditu, maitasun beroenez betetako biotzak Arrate'ko Amarenaren ondoan jarri ezkero, negu gorrian leize-zuloetan zintzilika egoten diran izotz koskorrak dirudite.

Bazekiten ongi gure aurreko eibartarrak Arrate'ko Ama mesede-egille aundia zala. Onegaitik eibartar bearsuen Ama ta Erregin degu Arrate'ko Ama. Nork esan zenbat mesede jaso zituzten antziñan Eibar'ko Ospitalean egon ziran gaxo ta elbarriak Arrate'ko Amaren eskutik? Nork indartzen zituen eibartar dirudunak egunero beartsuen artean limosnatxoak zabaltzeko? Arrate'ko Amak noski.

Arrate'ko Amak erakusten digun bezela maite dezagun Jaungoikoa eta zerutar mai-

tasunez igurtzi ta gozatu ditzagun urko lagunaren biotzak.

4'gn. egunerako irakurgaia

## ARRATE'KO AMA TA FAMILIKO PAKEA

Gure artean aberastasunik aundienetakoa pakea da.

Nundik datorkigu? Bakoitza bere mallan egotetik. Zu Jaungoikoak egiña zera. Onen beätz ertzetik zintzilika bezela zaude. Arrokeriz puztuta Onen gain jarri nai dezu...? Laixter iges egingo dizu pakeak zure biotzetik.

Jaungoikoaren Aginduak oinperatuaz dabiltz gurasoak etxean? Famili ortatik urruti dabil pakea. Egoaize epelak mendi egalean zear eramaten duen lañoa bezela, asarreak urrundu du pakea.

Arrate'ko Amak familiko berri badaki. Bere Semetxo ta senarrarekin familian bizia da. Egun sentian eguzkia aldameneko mendi-gallurrean kiñuka... Etxe ondoko arbolan txantxangorria saltoka kantari... Arrate'ko Ama otoitz beroan Jaungoikoari begira. Otoitz bapañua ateratzen da bere etxeko leio zirriztutatik. Egun guztiko lanak otoitz kutsua dute.

Arrate'n arkitu zuten eibartar ola-gizonak



pake iturria. Arrate'n goxatu ziran eibartar etxekoandre jator aien biotzak, Arrate'n paketu ziran eibartar gazteen barruak.

Beraz badakigu eibartarrok pake billa nora juan: Arrate'ko Amarengana.

5'gn. egunerako irakurgaia

## ARRATE'KO AMA JAINKOZ BETEA

Kristauak bi eratako bizia degu gugan. Bat giza-bizia, Jainko-bizia bestea. Gure gorputzari giza-bizia animak ematen dio. Animari Jainko-bizia zerutar grazi donetzalleak. Grazi onen bidez Jaungoikoari itsatsita gelditzen gera, mats adarra ondoari bezela. Au dala ta Jaungoiko gure Jauna era berezian etortzen zaigu gure biotzera.

Arrate'ko Amak etzun noiz-beinka bakarrik Jaungoikoa bere biotz garbian. Sortu zan unetik asi ta egun-da-sekulan galdu gabe gorde zun. Beti egon zan Jaungoikoz betea.

Gu ere pekatu astunik ez daukagun bitartean Jaungoikoz beteak arkitzen gera. Iru persona jaungoikozko oiek gugan ditugu. Ementxe dabiltz gure biotz-baratzan. Biotz guztia zerutar birtutezko loratxoaz apaindutzen digute. Noizbeinka Jesus'en zaurietatik ateratzen diran odol-intzez ezetu... ta maitasunprintz epelez berotu. Onela mar-

dul mardul egon oi dira zerutar loratxoak gure biotz-lorategi ontan.

Eibartar kristau jatorrak aintzat edukitzen dute zerutar bizi au beren biotzean. Nai dezu zerutar bizi oni galdu gabe zure biotzean eutsi? Atoz Arrate'ko Amaren oñetara. Onek emango dizu, bizi ori galdu gabe ibiltzeko, beardezun indarra.

### 6'gn. egunerako irakurgaia

## ARRATE'KO AMA JAUNGOIKOAREN ESAN-EGILLEA

Ez du atzo goizekoa gizonak besteren esanera burua makurtu nai eza. Lenen-lenengoetatik asi ta mundua mundu dan artekoak gutxi edo asko gaitz onen kutsua badegu.

Jaungoikoa da gure Jaun da Jabe. Onek berezkoa du guri agintzeko eskubidea, gizónari aginduak eman dizkio, ta onek agindu oiek bete bearrean, ez du bururik makurtu nai Aren aurrean.

Ez da onelakoa Arrate'ko Ama. Jaungoikoaren borondate-zantzua zein aldetara zan, aruntz begira jartzen zan Arrate'ko Ama.

Ikusi zun Jaungoikoaren naia zala Jesusen Ama izatea? Esi ta langa guztiak ausi ta gertu dago Ama izateko: "Egin bedi nigan zuk esan dezuna".

Beti ta nun-nai Jaungoikoaren borondatea betetzea. Au zan Arrate'ko Amaren jokaera.

Guri ere zer edo zer agindu digu Jaungoikoak. Emen dauzkagu Aren amar aginduak. Batzuetan kopetatik izerdia ixuri bearra daukagu oiek ondo betetzeko. Eibartar kristaua, eziñean arkitzen zera? Agindu oek betetzeko indarrik gabe zaude? Zu bezelakoak ziran antziñako eibartarrak ere. Aiek eziñean beren buruak ikusten zituztenean Arrate'ra jo oi zuten. Atoz zu ere eibartarron Amaren ondora, Onek emango dizkitzu Jaungoikoaren Aginduak betetzeko bear dituzun laguntzak.

### 7'gn. egunerako irakurgaia

## ARRATE'KO AMA TA EIBARTAR UMETXOAK

Antzin-antziñeko oitura da Eibar'en gurasoak beren umetxoakin Arrate'ko Amaren oñetara juatea. Ikustekoa da Eibar'ko umetxoen sinismena, irripar goxoa ezpañetan dutela, Arrate'ko Amatxori begira jartzen diranean. Zer ez diote eskatzen...? ta jakiña, Arrate'ko Amatxok Eibarko umetxoak eskatutako ezer eman gabe ezin laga. Amaika eibartarrek gogoan dauzkate oraindikan ere, naiz erritik urruti ibilli, umetxo zirala Arrate'ko Amaren ondoan

egiten zituzten otoitz goxo ta xamurrak. Eibartar guraso jatorrak beren umeak lentxago edo geroxago Arrate'ko Amaren mantupean jarri gabe nekez lagako ditu. Umeak eri-aldiren bat badu, zer esanik ez. Orduan bai ikusten dirala eibartar ama on onak, beren umetxoak eskuan artu, ta negarrez urtutzeko zorian Arrate'ko Andre Mariari laguntza eske. Ez da arkituko Eibar'en umetxorik Arrate'ko Amaren medailla lepotik xintxilika ez daramakiñik.

Zenbait aldiz gorde ote ditu Ama onek Eibar'ko umetxoak etsaiaren atzaparpean erori gabe zintzo ta zuzen ibili ditezen!

**8'gn. egunerako irakurgaia**

## ARRATE'KO AMA TA PEKATARIAK

Esku-arteko ondasunetan estu aldian arkitzen geranean laguntzen badaki Arrate'ko Amak, amaika gorpotz-gaitz sendatu ere bai bere ondora, sinismen beroz, sendagai eske, juan diran gaxo ta elbarrien artean. Zenbat eibartar famili gogorkeriz betetakoak gozatu ditu! Baiña bere lantegirik bereziena pekatuz usteldutako biotzak sendatzea da. Ontan bai degula esku egokia Arrate'ko Ama. Egia da, Eibar'ko umetxoak, beren biotzak eskuan arturik, pekatu astunik



egin gabe ibilliko zirala agindu zien Arrate'ko Andre Mariari, baiña... inpernuko etsaiaren indarra aundia da, bultzada aundiak egiten dizkigu Jaungoikoaren bide garbitik pekatuaren bide zikiñera bota naiean. Gure barruan ditugun griñak ere pekaturako joera aundia ematen digute askotan da askotan.

Zori txarrez gure biotz-ateak pekatuari iriki egiten dizkiogu.

Zer egin? Gure biotza pekatuz ustelduta daukagula ta alperrik dala ori garbitzen astea? Ez orixe. Ori ez da eibartar jatorraren joera.

Gizon burutsuak sendagille ona nun dagon laixter jakiten dute. Erleak lore eztitsua nun dagon azkar jabetzen dira. Eibartar jatorra bazera atoz Arrate'ko Amaren ondora. Onek aterako dizkitzu zure biotz usteletik pekatuaren kutsu guztiak. Onek bere esku biguñ da almentsuarekin aterako dizkitzu pekatuzko arantza guztiak banaka banaka zure biotzetik.

9'gn. egunerako irakurgaia

## ARRATE'KO AMA EIBARTARREN AMA TA ERREGIN

Eibartar zintzo ta jatorraren biotzean gauza eder asko ditugu, baiña gauza eder oien artean bat da beste guztiak baiño geiago nabarmentzen dana. Lorategirik ederrenean ere bat edo beste izaten dira beste guztien gañetik burua jasotzen dutenak.

Zer degu beste edertasun guztien gañetik dagon gauza eder eta zoragarri ori?

Arrate'ko Amaren maitasuna. Au da eibartarra eibartar egiten duena.

Kendu emen jaiotako baten biotzetik Arrate'ko Amaren maitasuna, eta onek eibartar izatea galdu du. Izan ere Arrate'ko Ama eibartar guztien Ama ta Erregin baitdegu.

Beti izan da eibartarra Arrate'ko Andre Mari Sortzez Garbi zalea, baiña batez ere 1928'garren urtetik. Urte artan, Pio XI garrena Aita Santu zala Eibar'ko Zaindari. Ama, ta Erregintzat aukeratu zuten. Urrengoan Koroitu.

Arrezkero eibartar ume, gazte, eta zar guztiak Arrate'ko Amaren babesean daude. Onek gordetzen ditu, olloak txitatxoak bezela, Onek luzatzen dizkie premi-aldietan



bere beso almensuak. Onen biotz ederrean dute eibartarrak gordeleku. Onek laguntzen die beren lantegi txalogarrietan. Onek jaiotzan, bizitzan eta eriotz orduan.

Gorde Arrate'ko Ama maitea, erri berdingabe au zure mantupean. Zaindu gure umetxoak etsaiaren atzaparpean erori ez ditezen, zaindu gure gaztedia pekatuaren uztarripean jarri ez dedin, zaindu gure guraso jatorrak beren eginkizun mardulak bear bezela bete ditzaten, indartu ta aurrerapena eman gure lantegiei. Zaindu emengo nekazari jatorrak ekaitz-aldietan. Argitu gure Agintariak zure esanetara agindu dezaten, lagundu batez ere gure erriko Apaiz Jaunei eibartar guztiok zure babesetik urrundu gabe gorde gaitzaten.

## ARRATE'KO AMARI ABESTIA

Eibartarren Zaindari
Arrate'ko Ama,
Pozez beterik gatoz
Guztiok Zugana.

*"Agur agur agur Maria...*

Antziñatik zaitugu
Arrate-mendian,
Zuk gorde dezu Eibar
Zure mantupian.

Zu ikusi ta pozez
Jartzen gera Ama,
Zurea bai da beti
Gure erri dana.

Erletxoak lorean
Dute atsegiña;
Lorerik ederrena
Eibar'ko Erregiña

Eibar'ko umetxoak
Pozez ta kantari
Jayo orduko dabiltz
Arrate'koari.

Neskatx eta mutillak
Arrate-mendian
Otoitz goxua dute
Amaren aurrian.

Arrate'ko Amari
Begira jartzean
Pake eztia degu
Gure biotzean

Zure oñetan dezu
Eibar'ko erria,
Ikusten duelako
Laguntza premia.

Luzatu esku oyek
Mesedez beteak,
Zureak bai gaituzu
Zar eta gazteak.



Ola-gizonak eta
Baserritakoak
Zainduko gaitu beti
Ama Arrate'koak.

Eibar'ko Agintari
Ta Eleizgizonak
Zure laguntzarekin
Izan bitez onak.

Urrengo arte Ama
Eibar'ko Erregin
Izan gaitezen beti
Guztiok Zurekin.